




GALDU ETA IRABAZI

Doinua: Urzo xuri pollit bat A

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)



Iñaki Artola Izagirre

- 1 Galdu ta irabazi irabazi, **galdu** bataren bila eta bestea **azaldu** onenak ere hortik ez daudela **salbu** gogoan izatea komeniko **zaigu**.
- 2 Tarteka jolastea oso ondo **dago** guk aukeran ordea jokatu **nahiago** musean ere berdin: txikira **hordago**! Hori bai, galtzeko prest egon beharra **dago**.
- 3 Ekartzen duen arren batzutan **negarra** pena ta zer hobetu pentsatu **beharra** galtzean pizten da maiz barruko **indarra** mingarria da baina ez da beti **txarra**.
- 4 Batzuk aitzaki bila beti eta **nonahi** bere bikoteari errua bota **nahi** horrela dabilena nahastuta dabil, **ai**! Partida gal lezake laguna ere **bai**.
- 5 Inorri ez baitzaio galtzea **gustatzen** ni ere aritzen naiz biraoka **ozen** pilota ostikoz ta harrika **botatzen** ta gero pentsatzen dut: hainbesterako **al zen**?
- 6 Irabaztea dugu gauza **mundiala** poztu eta ospatu behar den **bezala**! Ikusiz saiatzeak saria **daukala** lanean jarraitzeko balio **dezala**!
- 7 Aurkarien aurrean bazabiltz **saltoka** ez ahaztu borobila dugula **pelota** hurrena zu geratu zintezke lur **jota** beraz, kontuz ibili gandorra **igota**.
- 8 Biek ere badute arriskurik **berez**: galtzean sentitzea txar hutsa **ahalez** irabaztean berriz jainko txiki bat **lez** bata ez da egia bestea ere **ez**.
- 9 Kirolak jarri arren bat bere **lekuan** batzuk behean eta besteak **altuan** sari potoloa ez dator **talentuan** baizik eta gozatzen dugun **momentuan**.
- 10 Kantxa baten barruan nahiz **aldageletan** hau da, jokoan bertan nahiz **harremanetan** guztion helburua ez al da **benetan** onena ematea zentzu **guztietan**?
- 11 Lehiak ze irakaspen ta **dibertimendu** kantxan hasi ta buka egingo **bagendu** ta beti kirolaren mugetan **mantendu** handik kanpo mesede gutxi **egiten du**.
- 12 Irabazi ta galdu galdu, **irabazi** bi aurpegiak txanpon berean **doazi** edozein alorretan nahi badugu **hazi** horixe da erronka: bitatik **ikasi**.

